

Hargin andaluza

Josu Waliño

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2002



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpa*



Hargin andaluza

Josu Waliño

Julene Azpeitia 15. ipuin lehiaketa

2002

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Josu Waliño (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Joanito Dorronsorori

- 1 -

Haizeak bidali du
handikan honuntza,
geroztik hemen dabil
gure andaluza:
hargiñ ona zala ta
zakurraren putza!...
Bera eroriko dek,
ez dakiok bultza!

Mutil potolo, malapartatu, eta itxura zikinekoa gainera! Baserrian lanean egon beharrean, batetik bestera non izorratuko ibiltzen zen bueltaka, txapel azpian zuen ganbara puska horretan ideia onik agertzen ez zitzaionlarik.

—Mira chavá! Te voy a meté una colleja en ese peazo pescuezo que tiene, que te va enterá! —bota zion andaluzak. Baina besteari bost. Han jarraitzen zuen, begi txiki maltzurak irribarrez, alkandora beltz zikin haren atzetik begira. Andaluzak negu guztia zeraman mozolo horren baserrian, Hernanin, fabrika berria eraikitzen. Euria eta hotza besterik ez zuen ezagutu negu guztian, bere bizitzan ezagutu ez zuen bezalako eguraldi gordina. Eta denbora hori guztian inguruan ibili zitzaion ideia aldrebeseko txekor puska hori, uneoro adarra jotzeko prest.

Oraingoan, ordea, gehiegi izan zen. Bezperan eraikitako pareta oker antzera aurkitu zuen goiz hotz hartan, eta horretaz jabeturik ahal zuen guztia egiten ari zen hau zuzentzeko. Batetik bultza, bestetik pisuak jarri, eta bitartean, alkandora beltzeko txekorra begira, zain, masaila gorriak berari irribarrez. Andaluzak hotz hartan berotzen zuten maldizioak jan, eta ez zion ezer esaten, badaezpada, nahikoa arazo bazituen eta bestela ere. Baina paretarekin etsituta zegoen une berean mutila bestea hasi zitzaion. Paretarekin zer egin ez zekiela, eta gainera bertsoak entzun behar! Ze uste zuen ba, ez ziola ulertuko ala? Ba hainbeste ulertzen zuen bai, aurpegira barrez ari zitzaiola jakiteko adina, seguru!

Hilabete horietako hotz eta sufrimenduak maldizio bihurtu zitzaizkion bat-batean; ahoa ireki orduko txekor beltzari botatako irain eta purrusta andana kanporatu zitzaion. Eta bazuen maldizioka aritzeko nahikoa arrazoi andaluzak. Hiru urte igaro zituen Euskal Herrian, bertan dirua erraz irabaziko zuenaren ametsarekin etorri zenetik hiru urte. Baina hotza eta euria besterik ez zituen aurkitu hizkuntza arrotzeko lurralde hartan, eta horretara ohitzen hasia zenean, gerra tokatu zitzaion. Andaluzian lasaitasuna zuten maite, baina Euskal Herrian gerran hasteko ez zuten inongo erreparorik. Basatiak egiten zitzaizkion euskaldunak, basatia haien hizkuntza, eta are basatiago beraien gerrarako gogo hori. Ez zen erraza andaluz batentzat euskaldunek zituzten berezitasun haiek ulertzea, baina gosea nagusi zen garaietan foru batzuegatik gerran hastea ezin zuen hark ulertu.

Gosetuta iritsi zen Euskal Herrira, eta aspaldi zegoen konturatuta etorri bezain gosetuta alde egingo zuela. Hasierako aberastasun ametsak iritsi ahala erakutsi zioten bizitzaren gordina, eta hau azaltzen zion ispiluaren aurrean bere burua jartzen zuen bakoitzean etxera itzultzeko grinak indartzen zitzaizkion. Hernaniko ume haren adar jotzeak esan zion iritsia zela horretarako garaia. Eta buruan ideia hori zuela, trasteak hartu eta alde egin zuen. Alde txekor beltz horren baseritik, alde Hernanitik, eta alde basatiz betetako Euskal Herria madarikatu horretatik.

Euskal Herrira etortzearen ideia ez zen berea izan. Lehengusuak berotu zizkion kaskoak, han dirua bazegoela esanez, eta inork ez zekiela pareta bat altxatzen. Berak ere ez zekien hargin lanik egiten, baina zaila izango ez zelakoan lehengusuari kasu egin, eta trena hartu zuen azkar aberastu asmoz. Iritsi orduko, han dirua zegoela errepikatzen zioen lehengusuak, eta gainera hitz egindakoaren erdia ulertzen ez zitzaizenez, kasurik txarrean ezjakinarena egitea ere bazegoela esan zion hark orduan. Eta han urte gutxitan irabazitako diruarekin Andaluziara itzuli eta zezen haztegi bat irekiko zutela bien artean. Horixe baitzen haren ametsa, zezen artean bizitzea, eta ez zezenak baino basatiago izan zitezkeen gizakien artean.

Baina azkar konturatu zen gauzak ez zirela horrela. Dirua izan arren, ez zuten hain erraz askatzen bertokoek. Eta hizkuntza berdina hitz egiten ez bazuten ere, ederki zekiten, ordea, nola ulertarazi beraiek nahi zutena, eta gaztelaniaz ulertu ere ongi ulertzen zuten komeni zitzaizkion. Berak, ordea, euskaraz ez zuen tutik ulertzen iritsi zenean, naiz eta orain, hiru urte geroago, goseak eta lan egin beharrak ederki lagundu zioten belarria azkartzen. Baina nazkatuta zegoen. Gerra, gosea eta hotza baziren nahikoa arrazoi bere herrira itzultzeko.

Gainera, irabazten zuen gutxia lehengusuarekin alokatuta zuen gela zikina ordaintzen eta asteburutako parrandetan gastatzen zuen, eta inoiz ezer geratzen bazitzaion, etxean utzi zuen amari bidaltzen zion postaz. Horrela ez zen ez aberastuko! Etxera itzuli eta torero egingo zen, Andaluzian, bere herrian, eta horrekin ere ez bazen aberasten, gutxienez zezen artean ibiliko zen bizitza osoan.

Eta hiru urte lehenago Euskal Herrira diru eta aberastasunen bila ametsetan ekarri zuen trenbide berak, atzera eraman zuen, Andaluziara, ekarritako diru eta gose berarekin bide herdoilduan atzera, baina oraingoan, zezen eta fama ametsei jarraituz. Diegito de Cordoba "El cantero" zioten kartel gorri eta horiek betetzen zioten burua, eta inoiz lortzen ez bazuen ere, inork ez zion behintzat berriz bertsorik abestuko.

-2-

—Mira Diego. Llevas veintitrés años toreando, tienes artritis y nunca has sido una figura que digamos. No pensarás que puedes seguir así toda la vida ¿verdad? ¡Ya es hora de que te retires! —hori esaten ziona ez zen bera baino gazteagoa, eta bere mahaiaren atzean gordetzen zuen tripa ederrak ere ez zion zezen baten aurrean jartzeko mesederik egingo. Apenas kerik ateratzen ez zuen puru txustar bati tiraka ari zen, begi txikiekin bere aurrean eserita zegoen aurpegi zurbileko gizonari begiratzen zion bitartean. — Te ofrezco la oportunidad de retirarte con el dinero que nunca tuviste. Vamos a entrar en un nuevo siglo! Y las cosas van a cambiar. En el Norte quieren una gira de toreros para celebrar el nuevo siglo y me han llamado a mí. Vente conmigo, hacemos una gira de unos cuantos pueblos por todo lo alto y nos pagan un dineral. ¡Esos vascos no tienen ni puta idea de como es un toro y menos un torero! Sacamos unos buenos duros, tú te retiras y yo me compro un puro como Dios manda.

Aurpegia are gehiago zimeltzen zitzaion Diegori hori entzunda. Bazekien besteak esandakoetan egi handiak zeudela. Artritisak jota zegoen eta laster utzi beharko zuen zezen artean ibiltze hori, bestela, bera erretiratzen ez bazen zezen batek erretiratuko zuen lehenago. Baina Euskal Herrian aberasteko zegoen erraztasun hori aspaldi entzundako kontua zen, hogeita hamar urte lehenago ia, eta ez zion batere graziaz egiten hara itzultzeak. Bi gauza ez ziren aldatu harrez gero: Euskal Herriarekiko sentitzen zuen mesfidantza, eta bere patrikaren diru beharra. Bigarrenak agintzen zuen beti, eta aldi honetan ere bere erretiroa izango zen zezen haztegiaren ametsetan iparraldera joatea erabaki zuen.

Oraingoan ez zen berak uste zuen bezain bidaia hutsala izan. Lehen aldiz Euskal Herrian egon zen garaia gerra garaia zen, foruak desagertu eta herria hankaz gora aurkitzen zen. Mende berriaren jaiotza zen beraiek bertaratu zirenean, eta oraingoan, industrializazioa puri-purian aurkitu zuten Bertako jendeak, andaluzen begietara oraindik basatiak izan arren, bazituzten nahikoa perratxiki patriketan. Hizkuntzak arrotz izaten jarraitzen zuen, baina Diegok, oraindik ere euskaraz zerbait ulertzen zuenez, eta hitz gutxi batzuk esateko ere gai bazenez fama azkarra irabazi zuen hango jendearen artean. Plaza batetik bestera zebiltzala beraien fama zabaltzen hasi zen, eta han eman zituen hilabete gutxietan Diegito "el vasco" ere deitzen zioten batzuk.

Horrela pasa zituzten Euskal Herriko zezen-plaza txikiak, festarik festa ibiliz Azpeititik Debara, eta handik Bizkairaino ere joanaz. Uda garaia zen, eta hogeigarren mendean sartu berri zirenez herri guztietan nahi zituzten festa bereziak ospatu. Zer bereziago euskaldunentzat Andaluziatik etorritako gizon haiek baino? Ezin esan zezen-plaza horiek gauza handia zirenik, baina aspaldian baino gusturago sentitzen hasi zen Diego pixkanaka, eta konturatzerako euskaldunekiko zuen mesfidantza ere ahazten hasi zitzaion.

Horrela iritsi ziren beraien bidaiaren azken zezenketara. Tolosan egin behar zuten beraien agurra, zezen-plaza guztien artean ederrenean. Festa berezia zegoen han antolatua, bertsolari, herri-kirol eta antzekoekin zezenketaren aurretik. Erretiratzeko era ederra iruditzen zitzaion Diegori, bizitzan behingoz txotx batzuk patrikan zituela eta festa berezi bat ospatuz. Zezen haztegia erosteko adina diru ez zuen bildu, baina laguntza pixka batekin moldatzeko moduan izango zelakoan zegoen.

Talante horretan hasi zuen bere azken zezenketaren eguna Diegok, barreraren atzetik zezen-plaza betetzen zuen jendeari begira. Hondarretan ez zegoen zezenik, nahiz eta bertan harriak jasoz izerditan ari ziren haiek ere bazuten zezen itxura. Harmailetatik oihuka ari ziren gehienek diru apustuak egiten zituzten, eta bera bitartean, patxadan aurkitzen zen, inoizko zezenketaren aurretik baino erlaxatuagoa oraingoan. Horrela ikusi zituen harri-jasotzaileak, eta baita bestelako gizon-probak ere, eta horrela jarraitu zuen bertsolariak hasi ziren arte. Bi bertsolari plazaratu ziren, bata txikia eta euskaldun gehienek buru gainean eramanez ohi zuten txapela jantzita. Bigarrenak berriz bere laguna adina hiru toki hartzen zuen; makilaz laguntzen zen ibiltzeko, eta alkandora beltza zeraman soinean. Azken urteetan Diegok ia ahaztuta zuen alkandora beltzaren oso antzekoa. Ez zen garai batean ikusi zuen alkandora bera, baina bai hura soinean zeraman gizon izugarria. Bertsoak abesten zituen artean begietan zuen irribarrea ongi ezagutzen zuen Diegok, nahiz eta garai bateko alkandora zikin hura betetzen zuen gorputz mardula, gorputz itzela bihurtu zen. Garai bateko txekorra, zezen beltza bihurtu zela zirudien.

Harriduraren harriduraz jarraitu zuen Diegok Txirritari begira. Hogeita hamar urte lehenago ezagutu zuen haur lotsagabea eta orain plazaren erdian zegoen bertsolariaren arteko parekotasunak bilatuz. Eta hala jarraituko luke bera zegoen tokitik zezena plazaratzen ikusi ez balu. Zezena! Norbaitek ez ustean atea ireki, eta hirurehun kiloko animalia plazaratzen utzi zuen bertsolariak oraindik ere bertan zirela.

Bi bertsolarietan txikiena zezena begira zuela ikusi orduko ziztu bizian atera zen korrika, plazaren beste muturrera iritsi, eta atzetik jarraika zuen zezenak heldu baino lehen barrera denak saltatu zituen txapela airean galduz. Besteak, berriz, plazaren erdian jarraitzen zuen, bere gorputz itzelarekin zer egin ez baleki bezala zezena zuzen begira jarri zitzaionean. Diegok ez zuen bitan pentsatu. Zezenaren aurrean aurkitzen zenean ez zuen pentsatu ohi, eta oraingo egoeran gutxiago; bere kapotea hartu, eta plazara jauzi zen guztiz jakin gabe nor toreatzeko gogo gehiago zuen, zezena, edo hogeita hamar urte lehenago bera toreatu zuen beste txekorra. Eta bi zezenen artean jarrita, zeinek beldur gehiago sortzen ote zion bere buruari galdetzen zion bitartean, bizitzan toreatu ez zuen bezala toreatu zuen, eta kapotazoz kapotazo, bi adarreko zezena dantzatu zuen alderik alde plaza goitik behera betetzen zuen jendearen txalo zaparraden artean. Eta horrela eramanez pixkanaka zezena zegokion tokira, babesera, alkandora beltzeko zezenak plazaren erdian jarraitzen zuen

bitartean, bere makilari helduta begira, harriduraren harriduraz tokitik mugitzeko burutaziorik gabe.

Ez zuen Diegok inoiz horrelako sentsaziorik sentitu, ez baitzuen inoiz hainbeste gozatu zezen baten aurrean. Eta bere estasi partikularrean plazako txaloei kapotearekin erantzuten ari zela hurbildu zitzaion bigarren zezena, poliki, eskua zabalik eta esker oneko hitzak esanaz orain irribarrerik egiten ez zuten begietatik.

Urte haiek guztietan gogoan izan zituen masaila gorri haiek begiratu zituen Diegok, eta hainbeste urtetan bere oroitzapenetan irribarre egin zioten begi txiki horiei irribarrez, honela abestu zion hainbeste gorrotatutako haur horri:

Vine a Tolosa por
mi última corrida
Y encontré en la arena
una vieja herida
Una pared de piedra
de abajo arriba
que buena hubiera sido
recta o torcida

Eta kapotea jaso, txapela kendu, eta korrallora zuzendu zen bere bizitzako azken zezenari estokea sartu ziola sentituz.